

# **Hezkuntza Departamentuaren nominan sartzen diren langileen datuak jasotzeari buruzko oharra**

**Bete beharreko inprimakiak (nahitaezkoa da data eta sinadura) eskura daude hemen:**

<http://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/informacion-laboral-rrhh/retribuciones>

## **1. Funtzionarioen nominarako datu pertsonalak**

- “Datu pertsonalak” (atal honetan adierazten den seme/alaba kopurua soilik hartuko da kontuan PFEZeko atxikipenerako, ez familia laguntza kobratzeko).
- “Zein bankutan kobratu nahi den”: bankuaren edo kutzaren izena eta kontu zenbaki osoa adierazi, IBAN kodea barne (24 digitu)

Noizbait ere Hezkuntza Departamentuarendako lan egin bada azken urteetan, datuak baditugu eta, beraz, ez baduzu atalen bat bete nahi lehenagotik dugun informazioa aintzat hartuko dugu.

Antzinakotasuna ordaintzeko (bosturtekoa eta graduak) nahitaezkoa da jatorrizko lanpostuko antzinakotasuna justifikatzea. Horretarako aurkeztu beharko dira:

- Betetako azken hirurtekoko fotokopia edo, kasua bada, alde zuzeneko zerbitzuen aitortpena.
- Nomina baten fotokopia

## **2. Familia laguntza eskatzeko eskabidea, emantzipatu gabeko seme-alaba adingabeengatik edota desgaitasun fisiko edo psikikoa duten seme-alabengatik**

Inprimakia bete eta familia liburuaren fotokopia atxiki.

Laguntza familia betetzeko seme/alaben aitortpena ez dago loturik PFEZen ondorioetarako seme/alaben aitortpenarekin.

## **3. Familia laguntza eskatzeko eskabidea, diru-sarrerarik ez duen ezkontide edo bikotekide egonkorragatik**

Inprimakia bete eta familia liburuaren fotokopia edo izatezko bikotea osatzearen egiaztagiria atxiki.

## **4. Borondatezko atxikipena**

Hezkuntza Departamentuarendako lan egin baduzu aurten, kontuan izanen ditugu zure sarrerak PFEZen kalkulurako.

Aurten Hezkuntza Departamenturako lanik egin ez baduzu ez dugu informaziorik izanen zure sarrerei buruz eta, beraz, gaur egun duzun PFEZen ehuneko deskontatzea edo beste zerbait nahi baduzu inprimaki hau bete beharko duzu.

## **5. Onuradunak izendatzeko inprimakia**

Bizitza eta istripu aseguru-polizako datuak (nahitaezkoa da data eta sinadura originala).

Irakurri jarraibideak inprimakiaren gibeletan.

“Lantokiak”.- Eskuraturiko destinoa (nahiz eta behin betikoa ez izan)

“Enpleguaren datuak”.- Datu pertsonalak idatzi

Gainerako atalak izendatu nahi diren onuradunen arabera bete behar dira.

Nominaren ordainagiria internet bidez kontsultatu behar da. Ikastetxeetan gutxienik ordenagailu bat bada nominaren ordainagiria kontsultatu ahal izateko. Nomina kontsultatzeko helbidea ondokoa da (IFZ eta PINeko azken 4 digituak sartu behar dira):

[http://www.navarra.es/home\\_es/ServiciosEmpleado/ficha/11723/Recibo-de-nomina-del-Gobierno-de-Navarra](http://www.navarra.es/home_es/ServiciosEmpleado/ficha/11723/Recibo-de-nomina-del-Gobierno-de-Navarra)  
PINaren kudeaketa [http://www.navarra.es/home\\_es/Servicios/ficha/3096/Gestion-del-PIN](http://www.navarra.es/home_es/Servicios/ficha/3096/Gestion-del-PIN)